

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,  
UDAL JABARI PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA USTIAPEN BEREZIARI DAGOZKION  
TASAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten ditu araua aldatzeko ondoko proposamenak, helburu izanik garapen handia izan duen posta operadoreen merkataritza jarduerak ere tokia izatea Ordenantza honetan:

ALDATZEA jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren eranskineko **2.B atala** honakoa GEHITUTA:

*10.c) Aparkatzeko tokiaren baimen sinplea, aldian behin eta denbora jakin batean baliatzeko banaketan aritzen diren posta operadoreek, beren merkataritza jardueraren barnean bezero partikularrei salgaiak banatzeko.*

Zenbatekoak zehazteko, txosten teknikoa egingo du dagokion udal sailak, eta horren arabera zehaztuko da Ordenantzaren eranskinean.

Donostian, 2022ko abuztuaren 3an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea